

UDAL-BATZARRA 17/03

UDAL-BATZARRAK, 2003ko Abenduaren 23an EGINDAKO OHIZKANPOKO BILKURARI DAGOKION AKTA

PARTAIDEAK:

ALKATEA:

Fidel Azpiroz Arrillaga

ZINEGOTZIAK:

Jose Ignacio Otermin Garmendia

Kepa De la Iglesia Sánchez

Jesus M^a Arsuaga Lizaso

Mikel Zubillaga Galárraga

M^a Carmen Egurza Salaberria

Silvia Dos Santos Leite

IDAZKARIA:

Nekane AGIRRESAROBETE ETXEBERRIA

ANOETAko Udaletxean, 2003ko abenduaren 23an iluntzeko zazpi terdiak direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, Ohizkanpoko Bilkura egin asmoz Fidel Azpiroz Arrillaga alkate jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik. Juan Jose Martin Zubelzu eta Nieves Alarco Martinez Zinegotziak ez dira etorri eta ez dute arrazoirik adierazi; idazkaria, Nekane Agirresarobe Etxeberria And.

Hasi aurretik esan, Peñagarikano Irazusta familiak gutun bat bidali zidala eta honen irakurketa egingo dut:

“Alkate agurgarri hori:- Zuregana zuzentzen da gure familia, Peñagarikano Irazusta familia, Iñaki zendu berriari udalaren izenean emandako arretagatik.- Eskerrak gure anai-aita-seme eta senide genuen Iñakiren alde jarritako eskelarengatik eta zuen dolumin adierazpenekin gure hutsune sentimendua baretzen laguntzeagatik.- Udal batzorde osoari eskerrak bideratu iezaizkiozu gure izenean.- Peñagarikano-Irazusta sendia”.

1.- 2003KO URRIAREN 2AN ETA AZAROAREN 14EAN OSPATURIKO BILKUREN AKTEN ONESPENA.

Udalbatzak 2003ko urriaren 2an eta azaroaren 14ean egindako bilkuretako aktak irakurri eta aho batez onetsirik geratu dira.

Son leidas y aprobadas por unanimidad de los reunidos las actas de las sesiones celebradas con fecha 2 de octubre y 14 de noviembre de 2003.

2.- ALKATETZAKO DEKRETUEN BERRI EMATEA, 453TIK 528RA.

Fidel Azpiroz Arrillaga Alkate Jaunak egindako ebazpenen berri eman du, alegia, 453tik 528ra, biak barne; korporakideek jakitun geratzen direlarik.

El Sr. Alcalde D.Fidel Azpiroz Arrillaga da cuenta de las resoluciones dictadas correspondiente a los números comprendidos entre el 453 al 528, ambos inclusive; dándose la Corporación por enterada.

3.- ZENBAIT DIRULAGUNTZA ONESTEKO PROPOSAMENA.

2003ko azaroaren 18an ospaturiko Kultura Batzordeak proposaturiko ondorengo diktamena ikusirik, non, Kuku Pilota Elkarteak 2003/2004 urterako kozkortuen taldea entrenatzeko (15-17 urte) dirulaguntza eskatzen den. Eskaerari 2002/03 urteko memoria eransten da.

Vista la propuesta dictaminada por la Comisión de Cultura de fecha 18 de noviembre de 2003 que se señala a continuación, consistente en la solicitud de subvención presentada por Kuku Pilota Elkartea para la actividad de entrenamiento de pelota dirigido a los jóvenes del municipio (de 15 –17 años) durante el curso 2003/04. Se adjunta a la solicitud memoria de la actividad desarrollada en el curso 2002/03:

“Kuku Pilota Elkarteari dirulaguntza.- Azaroaren 18ko Kultura Batzordeak aztertu du, besteak beste, gai hau: Kuku Pilota Elkarteari dirulaguntza kozkortuen taldea entrenatzeko.- Azalpenak: Manex Arrieta Gorostiagak aurkeztu du Kuku Pilota Elkartearen izenean gazte kozkortuak entrenatzeko proposamen bat, 2003-2004 ikasturteari begira. Bestalde, aurkeztu du ere 2002-2003 ikasturteko memoria.- Egitasmo honetan parte hartzen ari diren (eta orain arte parte hartu duten) ikasleen izen-abizenak hauek dira: Asier Goiaran 15-16 urte, Asier Jáuregui: 15-16 urte, Aritz Lasa 17 urte, Iñaki Etxeberria: 17 urte.- Memoria horren arabera, 93 ordu egin ditu irakasleak 2002-2003 ikasturtean gaztetxoak entrenatzen.-2002ko azaroaren 6ko Kultura Batzordeak proposatutakoaren arabera, irakasleari 16€ ordaindu behar zaio ordu bakoitza; beraz, guztira 1488€.- Hauetatik, Kuku Pilota elkarteak erdia ordiantzekotan gelditu zen, eta Udalak beste erdia, 744 €, alegia.- 2002ko abenduaren 12ko data duen dekretu bidez onartu zen 400 €ko dirulaguntza aurreratzea Kuku Pilota Elkarteari, eta gainontzekoa memoria aurkeztu ondoren ordaindu.- 2003-2004 ikasturtean egitasmo berarekin jarraitzeko asmoa du Kuku Pilota Elkarteak, eta 100 ordu inguru aurreikusten ditu entrenatzeko.- Proposamena: 744 € ordaintzea Kuku Pilota Elkarteari kontzeptu hauengatik: 344€ 2002-2003 ikasturteko kozkortuen taldeko entrenamenduengatik; dirulaguntzaren likidazioa.- 400 € 2003-2004 ikasturteko kozkortuen taldeko entrenamenduengatik: gainontzekoa memoria entregatu ondoren aztertuko da. Memoria hau 2004ko urrian entregatu beharko du Manex Arrieta Gorostiaga irakasleak, eta bertan azaldu beharko dira: partaideen datuak, egindako ordu kopuru zehatza eta egitasmo honen balorazioa.-

2003ko azaroaren 19an ospaturiko Ongizarte Batzordeak proposaturiko ondorengo diktamena ikusirik, non, Anoetako Alkartasuna Biltokiak dirulaguntza eskatzen duen. Juntako

Vista la propuesta dictaminada por la Comisión de Bienestar Social de fecha 19 de noviembre de 2003 que se señala a continuación, consistente en una subvención solicitada por Alkartasuna

presidentearen eskaera eransten da.

Biltokia de Anoeta . Se adjunta solicitud del presidente de la Junta Directiva.

“Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak, 2003ko azaroaren 19an egindako bileran, besteak beste, honako hau proposatzea erabaki zuen:.- 4. Jubilatuen Dirulaguntza.- Jubilatuen elkarteko Juntak 2003ko azaroaren 14an egindako bileran zehazturikoa ikusi da. Ikusirik partida horretan 1.441 € daudela, batzordeak honako hau proposatu du:.- Anoetako “Alkartasuna Biltoki”ko jubilatuei 2003ko dirulaguntza ematea, 1441 €koa.- Datozen urtetarako ondoren zehazten diren erizpideak erabiliko dira: DIRULAGUNTZAK EMATEKO BAREMOAK – ekintzen kostuari aplikatu beharrekoak- Prebentzio, kultur, gizarte eta jolas ekintzetako begiraleak: %80.- Ikastaroak eta jarduerak egiteko materialak: %50 (denek erabili beharreko materialea, ez norberarentzakoa).- Txangotako autobusa: 24,40 € (bidai bakoitzeko).- Museo, erakusketa, kontzertu...sarrerak: 3 € partaideko.- Bazkariak: 3€ partaideko.- Omenaldi, merienda,txokolate jana, txistorra jana, lunch...: %25.- Dantzaldi, festa, joku txapelketa: €50.- EZ DA DIRUZ LAGUNDUKO: Opariak, gabonetako otarreak, loteria, mezak, telebista digitalerako izen emateak.- Eman beharreko dirulaguntza partida horretan dagoen diru kopurura baldintzatua egongo da.-

2003ko azaroaren 19an ospaturiko Ongizarte Batzordeak proposaturiko ondorengo diktamena ikusirik, non, zenbait erakundeek dirulaguntza eskatzen duten:

Vista la propuesta dictaminada por la Comisión de Bienestar Social de fecha 19 de noviembre de 2003 que se señala a continuación, consistente en la petición de subvenciones formuladas por varias entidades:

“Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak, 2003ko azaroaren 19an egindako bileran, besteak beste, honako hau proposatzea erabaki zuen:.- 6. Gizarte Erakundeei dirulaguntza.- Eskaerak: Ortzadar (753 S.E), Atzegi (1294 S.E), Ascodel (1213 S.E), Izan Fundazioa (1051 S.E).- Aurrekontua: 479,8 €.- Zehaztutako erizpideen arabera puntuazioa eta ondorioz proposamena honela litzateke: Ortzadar, 1,5 puntu, 143,94 €.- Atzegi, 1,5 puntu, 143,94 €.- Ascodel, puntu 1, 95,96 €.- Izan Fundazioa, puntu 1, 95,96 €”.

Partaideek aho batez erabakitzen dute:

Se acuerda por unanimidad de los reunidos:

Lehenengoa.- Kuku Pilota Elkartearen alde 744 €tako dirulaguntza ematea, ondorengo desglosearekin:

Primero.- Conceder una ayuda económica a favor de “Kuku Pilota Elkartea” por un importe total de 744 €, de acuerdo con el desglose que a continuación se señala:

- Kozkortuen taldea entrenatzeko (15-17 urte) 2002/03 urteko dirulaguntzaren likidazioa....344 €
 - Kozkortuen taldea entrenatzeko (15-17 urte) 2003/04 urteko dirulaguntza 400 €.
- Gainontzekoa memoria entregatu ondoren aztertuko da. Memoria

- 344 € liquidacion-subvencion curso 2002-2003 por entrenamiento de pelota dirigido a los jóvenes del municipio (de 15 –17 años).
- 400 € subvención curso 2003-2004 entrenamiento de pelota dirigido a los jóvenes del municipio (de 15 –17 años). La liquidación de esta subvención se

hau 2004 urrian entregatu beharko du Manex Arrieta Gorostiaga irakasleak, eta bertan azaldu beharko dira: partaideen datuak, egindako ordu kopuru zehatza eta egitasmo honen balorazioa.

efectuara, en su caso, una vez presentada la memoria correspondiente en el mes de octubre por el profesor Manex Arrieta Gorostiaga. En dicha memoria se reflejará los datos de los participantes, horas efectuadas y valoración de la actividad.

Bigarren.- Anoetako Alkartasuna Biltokiaren alde 1441 eurotako dirulaguntza ematea; jakinaraziz ondorengo dirulaguntzak emateko, udal honek ondoren zehazten diren erizpideak kontutan izango dituela:

Segundo.- Conceder una ayuda económica a favor de “Anoetako Alkartasuna Biltokia” por un total de 1441 €; comunicando que para futuras subvenciones este Ayuntamiento aplicará los criterios que a continuación se señalan:

“DIRULAGUNTZAK EMATEKO BAREMOAK – ekintzen kostuari aplikatu beharrekoak- Prebentzio, kultur, gizarte eta jolas ekintzetako begiraleak: %80.

Ikastaroak eta jarduerak egiteko materialak: %50 (denek erabili beharreko materialeak, ez norberarentzakoa)

Txangotako autobusa: 24,40 € (bidai bakoitzeko).

Museo, erakusketa, kontzertu...sarrerak: 3 € partaideko.

Bazkariak: 3€ partaideko.

Omenaldi, merienda, txokolate jana, txistorra jana, lunch...: %25.

Dantzaldi festa, joku txapelketa: €50.

EZ DA DIRUZ LAGUNDIKO: Opariak, gabonetako otarreak, loteria, mezak, telebista digitalerako izen emateak.

Eman beharreko dirulaguntza Ualax bere Aurrekontu Orokorrean izendatutako kopurura baldintzatua egongo da”.

Hirugarren.- 479,80 €tako dirulaguntza ematea ondoren aipatzen diren erakunde eta zenbatekotan:

Tercero.- Conceder una ayuda económica por un importe total de 479,80 € a las Instituciones y según importes que a continuación se señalan:

Entitatea/Entidad	Puntuak/Puntos	Dirulaguntza/Subvención
Ortzadar	1,5	143,94 €
Atzegi	1,5	143,94 €
Ascodel	1	95,96 €
Izan Fundazioa	1	95,96 €

4.- ANOETAKO HERRIKO KOMUNA PUBLIKOEN FUNTZIONAMENDURAKO ARAUTEGIA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Fidel Azpiroz Arrillaga Alkate jaunak adierazten du, Komun Publikoen obra bukatua izan dela eta garrantzitsua izango litzatekela erabilpen arau batzuk jartzea. Hau horrela, arau sinple-sinpleak prestatu dituzte eta komeniko litzateke onestea.

Anoetako Komun Publikoen Funtzionamendurako Arautegiari buruzko akordio proposamena ikusi ondoren.

Partaideek aho batez erabaki dute:

Lehenengo.- “ANOETAKO KOMUNA PUBLIKOEN FUNTZIONAMENDURAKO ARAUTEGIA” behin-behineko eran onestea, akta honi 1 eranskin modura eransten zaiolarik.

Bigarren.- 30 eguneko epeaz jendaurrean jartzea, berarekiko aurkez daitezkeen erreklamazio, arrazoibide edo oharpenetarako.

Hirugarren.- Aurreko atalean aipaturiko jendaurreko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharpenik aurkeztu ez bada, lehengo atalean onarturiko erabakia behin betiko izaera hartuko du, onespén berri baten baharrik izan gabe.

Vista la propuesta de acuerdo con relación a la Normativa para el Funcionamiento de los Aseos Públicos de Anoeta.

Se acuerda por unanimidad de los reunidos:

Primero.- Aprobar inicialmente la “NORMATIVA PARA EL FUNCIONAMIENTO DE LOS ASEOS PUBLICOS DE ANOETA”, cuya copia se adjunta como anexo 1 a la presente acta.

Segundo.- Abrir un plazo de exposición pública de 30 días con el objeto de que cualquier interesado pueda presentar las reclamaciones, alegaciones u observaciones que estimen oportunas.

Tercero.- El acuerdo adoptado devendrá definitivo sin necesidad de nuevo acuerdo, si transcurrido el plazo señalado en el párrafo precedente, no se hubiera producido reclamación ni observación alguna.

5.- ANOETAKO HERRIKO FRONTOIAREN FUNTZIONAMENDURAKO ETA ALDAGELAN ERABILPENERAKO ARAUTEGIA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Fidel Azpiroz Arrillaga Alkate jaunak adierazten du, aldagelak bukatu berriak direla eta garrantzitsua ikusi dela arautegi minimo bat jartzea, hau horrela, Anoetako Herriko Frontoiaren Funtzionamendurako eta aldagelen erabilerarako ondorengo Arautegia aurkezten da.

Anoetako herriko Frontoiaren Funtzionamendurako eta aldagelen erabilerarako Arautegiari buruzko akordio proposamena ikusi ondoren.

Partaideek aho batez erabaki dute:

Lehenengo.- “ANOETAKO HERRIKO FRONTOIAREN FUNTZIONAMENDURAKO ETA ALDAGELN ERABILERARAKO ARAUTEGIA” behin-behineko eran onestea, akta honi 2. eranskin modura eranstean zaiolarik. Frontoiko erreserba egiterakoan zein kontzeptupean egiten den jakinarazi behar da; udalarentzat esku pilota eta pilota goma modalitateak lehentasuna izango du beste edozein kirolaren aurrean.

Bigarren.- 30 eguneko epeaz jendaurrean jartzea, berarekiko aurkez daitezkeen erreklamazio, arrazoibide edo oharpenetarako.

Hirugarren.- Aurreko atalean aipaturiko jendaurreko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharpenik aurkeztu ez bada, lehengo atalean onarturiko erabakia behin betiko izaera hartuko du, onespene berri baten bazarrik izan gabe.

Vista la propuesta de acuerdo con relación a la Normativa para el Funcionamiento del Fronton Municipal de Anoeta y para el uso de sus Vestuarios.

Se acuerda por unanimidad de los reunidos:

Primero.- Aprobar inicialmente la Normativa para el “FUNCIONAMIENTO DEL FRONTON MUNICIPAL DE ANOETA Y PARA EL USO DE SUS VESTUARIOS”, cuya copia se adjunta como anexo 2 a la presente acta, añadiendo que al solicitar la reserva para uso del frontón municipal se deberá señalar en que concepto se solicita; haciendo constar que para el Ayuntamiento tendrá preferencia la actividad de pelota a mano y pelota a goma sobre cualquier otra actividad deportiva.

Segundo.- Abrir un plazo de exposición pública de 30 días con el objeto de que cualquier interesado pueda presentar las reclamaciones, alegaciones u observaciones que estimen oportunas.

Tercero.- El acuerdo adoptado devendrá definitivo sin necesidad de nuevo acuerdo, si transcurrido el plazo señalado en el párrafo precedente, no se hubiera producido reclamación ni observación alguna.

6.- GIZARTE LAGUNTZAILEAREN KONTRATUA ERREGULARITZATZEKO, IRURA ETA HERNIALDEKO UDALEKIN HITZARMENA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Fidel Azpiroz Arrillaga alkate jaunak adierazten du, Anoeta, Irura eta Hernialde herrien artean hitzarmen bat egin nahi dutela gizarte laguntzailearen kontratazioa dela eta.

Gizarte laguntzailearen kontratazioa arautzeko hitzarmen proposamena ikusi ondoren.

Partaideek aho batez erabakitzen dute:

Lehenengo.- Aurkezturiko Hitzarmen proposamena onestea, akta honi 3. eranskin modura erantsiz.

Bigarren.- Alkate-Lehendakaria den Fidel Azpiroz Arrillaga jauna ahalmentzea akordio hau gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak sinatzeko.

Vista la propuesta de Convenio para regular la contratación de la Asistente Social.

Se acuerda por unanimidad de los reunidos:

Primero.- Aprobar la propuesta de Convenio presentado, cuya copia se adjunta como anexo 3 a la presente acta.

Segundo.- Facultar al Alcalde-Presidente D. Fidel Azpiroz Arrillaga para la firma del documento necesario en orden a la formalización del presente acuerdo.

7.- EUSKERA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA (EBPN) ONESTEKO PROPOSAMENA.

Fidel Azpiroz Arrillaga Alkate jaunak Kepa de la Iglesia zinegotziari eman dio hitza eta honek zehaztasun osoz orain arte egin diren pausoak azaldu ditu. Aurkeztu den dokumentazioan akatsak daudela eta zeintzuk diren adieraziz orri bat banatzen du.

Euskera biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) onesteko proposamena ikusirik.

Partaideek aho batez erabaki dute:

Euskera Biziberritzeko Plan Nagusia dokumentua onestea (akta honi eranstean 4. eranskina bezala), akta honi eranstean 5. eranskinean agertzen diren aldaketekin.

Vista la propuesta de aprobación de “Euskera biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN).

Se acuerda por unanimidad de los reunidos:

Aprobar el documento presentado “Euskera Biziberritzeko Plan Nagusia” que se adjunta como anexo 4 a la presente acta con las modificaciones señaladas en el documento que se adjunta como anexo 5 a la presente acta.

8.- KONEKTA ZAITEZ HERRITAR PROGRAMAREN ESPARRUAN ANOETAKO KZGUNEAK IREKI ETA USTIATZEKO LANKIDETZA-HITZARMENA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Fidel Azpiroz Arrillaga Alkate jaunak Kepa de la Iglesia zinegotziari eman dio hitza eta honek zehaztasun osoz orain arte egitasmoa aurrera eramateko eginiko pausoak azaltzen ditu. Kzgunea

Solkorre kalean udalak duen lokalean kakatzen da; bertan, teknologia berriak ezagutzeko aukera gutxien dituzten Anoetar kolektiboei "langabezia denbora asko daramatenek, etxeko andreak, hirugarren adinekoek etab" zuzenduta dago. Dagoeneko buzoneatu izan da erabilpenari buruzko informazioa, izen-emateko epea irikia dagoelarik.

"Konekta zaitetz" herrit@r programaren esparruan Anoetako Kzguna ireki eta ustiatzeko Lankidetz-Hitzarmena ikusirik.

Partaideek aho batez erabaki dute:

Lehenengo.- Aipaturiko Hitzarmena onestea, akta honi 6. eranskin modura erantsiz.

Bigarren.- Alkate-Lehendakaria den Fidel Azpiroz Arrillaga jauna, aipaturiko Hitzarmena sinatzeko ahalmentzea.

Hirugarren.- Ondorengoei, udal-arduradunak izendatzea:

- Kepa de la Iglesia Sanchez , Erakundearen aldetik.
- Teresa Soto Bermejo, tekniko aldetik.

Visto el Convenio de colaboración para apertura y explotación del centro de "Kzguna" de Anoeta en el marco del programa "konekta zaitetz" ciudadan@.

Se acuerda por unanimidad de los reunidos:

Primero.- Aprobar el Convenio señalado, el cual se adjunta como anexo 6 a la presente acta.

Segundo.- Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Fidel Azpiroz Arrilaga para la firma del Convenio citado.

Tercero.- Designar responsables municipales a:

- Kepa de la Iglesias Sanchez con caracter Institucional.
- Teresa Soto Bermejo, con caracter técnico.

9.- ANOETAKO A19 GUNEKO, ITTURTUXULO, LURZORUA EROSTEKO ETA BERTAN ERAIKITZEKO AURKEZTUTAKO ESKAINTZAK ETA ESLEITZEKO PROPOSAMENA.

Alkate Jaunak, Jose Ignacio Otermin zinegotziari eman dio hitza eta honek azaltzen du ze pauso eman diren esleipen hau aurrera eramateko. Jakina den bezala, Babes ofizialeko 58 etxebizitza eta salmenta libreko 24 garaje eraikitzeke, Itxurtxulo lurzorua besterentzeko, lehiaketara atera zen. Bertan, Bildo 5, S.Coop enpresaren eskeintza bakarrik aurkeztu zelarik.

Esleipenari buruz, Raimundo Mendiburu Abad arkitektuak txostena luzatu du. Udalak eskatuta, biabilitate plana egiten du; bertan, arkitektuak esaten digu posible dela egitasmo honekin aurrera egitea.

Otermin jaunak jarraitzen du adierazten, baldintza guztiak betetzen direla eta araudi aldetik ez dela arazorik ikusten, asmoa zela gaur esleitzea Bildo 5 Scoop-ri etxebizitza hauen eraikuntza. Idazkariak aste honetan espediente guztia aztertu ondoren, sorpresa handia hartu duela ikustean balorazio ekonomikoa falta dela, hau baldintza pleguak onartu aurretik egin behar zelarik.

Balorazio ekonomiko hau Rai Mendibururen eskuetan dago, eta biharamonean haren bila norbait pasako dela azaldu du

Bigarren arazo bat azaldu da, baldintza plegua onartu aurretik, eta mugitzen zen diru kopuruaren arabera Foru Aldundiaren baimena beharrezkoa zela, espediente hori oraindik tramitatu hasi gabe dagoelarik.

Guzti hau ikusirik, Oterminek proposatzen du gaia mahai gainean uztea bi arazo hauei irtenbidea eman arte. Era berean Oterminek azaltzen du Udalaren asmoa Bildo 5 Scoop-ri esleipena egitea dela behin tramite guztiak aurrera eraman ondoren.

Alkate jaunak puntu hau Gai-Zerrendatik kentzen du Obra eta Hirigintzako Zinegotziak aipaturiko zioak direla medio.

El Sr. Alcalde retira este punto del Orden del Día por las razones expuestas por el Concejal responsable del area de Obras y Urbanismo.

10.- ATZERRITARREN ESKUBIDEA ETA ASKATASUNARI BURUZKO MOZIOA.

Alkate jaunak Mikel Zubillaga zinegotziari hitza ematen dio eta honek ondorengo mozioa irakurtzen du:

El Sr. Alcalde da la palabra al concejal Mikel Zubillaga y este procede a dar lectura a la moción que dice como sigue:

“Alderdi Popularraren Gobernuak bigarren bezala tramitatu du Espainian Atzerritarrek dituzten Eskubide eta Askatasunei eta Atzerritarren Gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa aldatzeko lege organiko baten proiektua; izan ere, urtarrilaren 11ko 8/2000 Lege Organikoa aldatu zuen 4/2000 Legea. Zalantzarik gabe, bigarren aldaketa honetan ere, aurreko erreformetan bezala, giza eskubideak bermatzeko aukera zegoen. Gainera, garrantzi handiko gaia izanik, eztabaida sakonago eta zabalagoa merezi zuen, etorkinen elkarteei, giza eskubideen aldeko elkarteei, emakumeenei, haurren defentsarakoei, arrazakeriaren aurkakoei eta beste batzuei eztabaida horretan parte hartzeko aukera emanaz.

Onetsi diren arau berriek ondorio lotsagarri batzuk azaltzera behartzen gaituzte. Hona hemen: egoera irregularrean dauden pertsonen (600.000-800.000 pertsona) alternatibarik ez eskaintzea, bidegabekia izateaz gain, ausarkeriaz eta arduragabeaz jokatzeko da, biztanleriaren zati bat bidegabe uzten baitu kanpoan, Irregularitasun-egoeran daudenak burdinazko hesien artean ixteak, errolda poliziaren kontrolerako tresna bihurturik, ez du egoera konponduko, irregularitasun horretan bizi direnak hor baitaude (eta araudiaren beraren ondorioz gero eta gehiago izango dira). Horrela jokatzeko, alabaina, ezin jasaneko egoera sortuko du, pertsonen oinarritzko eskubideak (oinarritzko osasun-laguntza, adingabeentzako hezkuntza) eta gizarte-kohesioa urratzen baititu.

Horrek guztiak, eta Administrazioarekin harremanetan jartzeko sistema berezi bat eta gainerako herritarrei aplikatzen zaien prozeduraz bestelako bat ezartzeak, Erdi Arora eramaten gaitu berriro ere. Egoera horretan, botere publikoak pertsonen jatorriaren arabera erabiliko dituzte legeak, eta hori onartezina da zuzenbide-estatu batean. Gainera, nahiz eta kontrakoa bilatzen dela esan, ondorio ageriagoak (eta gatazkatsuegiak) izango ditu gure lan-merkatu jada oso araugabetu eta eskasean, zeren eta klandestino bizi diren eskubiderik gabekoak lan-indar gisa nahierara kontratatzeko aukerak –erraz zapaldu daitezkeen jendea da- soldaten jaitziera eta lan-baldintzen okertzea ekarriko ditu, baita bertoko langileek egoera irregular horretan bizi direnak errefusatzeko ere.

HONEN AURREAN,

1.- Herriak Estatuari eskatzen dio Estatuaren legedira ekar dezala 2000/43 Zuzentaraua, pertsonen jatorria edo arraza gorabehera, pertsona guztiei tratu-berdintasuna zor zaiela adierazten duen printzipioa ezartzeari buruzkoa.

2.- Herriak gaitzetsi egiten du ostera ere atzerritarrei buruzko legediaren aldaketa berria, Eusko Legebiltzarrak uste baitu lege horrek onartu ezinezko atzerapena dakarkiola etorkinek Espainiako Estatuan dituzten eskubideei eta askatasunei, legez kanpoko immigrazioa sustatzen duela eta zaildu egiten dituela autonomia-erkidegoek, aldundiek, udalek eta gainerakoek prestatutako gizarteratze-planak.

3.- Herriak herri-administrazio guztiei eskatzen die berma ditzatele, nork bere eskumenen esparruan, atzerriko etorkinen oinarritzko eskubideak eta pertsona horiek gizartearen oinarritzko zerbitzuez baliatzeko aukera, duten administrazio-egoera dutela”.

Partaideek aho batez erabakitzen dute “Atzerritarren eskubide eta askatasunari” buruzko mozioa onestea.

Se acuerda por unanimidad de los reunidos aprobar la mocion presentada sobre “Derechos y libertades de los Extranjeros”.

Azkenean, bilkurara etorritako ikus-entzuleek ondorengo interbentzioak izan zituzten:

Finalmente, se hace constar que el público asistente a la Sesión ha tenido las siguientes intervenciones:

2. puntuari dagokionez:

493. dekretuan azaltzen denez, zinegotzi baten aitari hemen udaletxeko lanak ematen ari zaizkio eta honen ondorioz jakina nahi nuke txosten juridiko baten bidez eman ahal liteken edo ez.

4. puntuari dagokionez:

Komun publikoak irekita dauden galtzen da eta atzerapenaren zergaitia. Alkateak erantzuten du arrazoa usai txarrak eta fleko batzuk lotzeko zeudelako izan dela.

5. puntuari dagokionez:

Ikus-entzule batek dio erabilpen eta funtzionamendu gaian 4. puntuak esaten du erabileraren berezitasunak kontutan hartuta debekatuta dago honako modalitatean aritzea: erremontea, puntako xistera, pala motza, pala luzea. Horrek esan nahi du beste kirola egitea posible dela edo ez?

Zubilaga zinegotziak erantzuten du aurreko legealdian tratatua izan zela, preferentzia zuten esku pilota eta pala jokatzen zutenek baina futboleko jolasteko baimena eskatu eta ez zen inolako pegarik jartzen, ikusten baitzen futbola ez zela

arriskutsua ez pertsona ez lekuarentzako, baina bai remonte, zesta punta... jolasteak, frontoia irekia zenez pilotak kanpora joaten zirelako.

8. puntuari dagokionez:

Ikus-entzule batek galdetzen du erabiltzaileak zein adinetik aurrera diren.

De la Iglesia zinegotzi jaunak erantzuten du 18 urtetik aurrera baina Anoetako kasurako lortu dela 16ra jesteria. Proiektu honen helburua da internet langabetu, etxeko andre eta teknologi berrietara gerturatzeko eragozpenak dituen pertsonentzako ekintzak sustatzea, orduan Eusko Jaurlaritzak kontsideratzen du 16 urtetik beherako pertsonak hezkuntza aldetik lor dezaketela teknologia berrietara gerturatzeko. Denborarekin akordiaok egingo dira Eusko Jaurlaritzarekin. Momentu honetan kolektibo hauek dabilta eta Kzgunaea beterik dago egunean 4 orduz. Aurrera begira, okupazio hori josten denean plan bereziak egin beharko dira: haurrentzako egun bat, merkatariarentzako, aukera anitz dago.

Ikus-entzuleak dio lokala udalarena izanik alperrikakoa iruditzen zaiola egin den obra egin eta lokala 4 orduz bakarrik irekita egotea.

De la Iglesia zinegotziak erantzuten dio, momentu honetan hasieran gaude eta gero nahi dena da gela bat izatea denbora gehiagorekin; baina orain Eusko Jaurlaritzarekin dugun hitzarmenaren arabera irekitzen da eta irizpideak errespetatu behar dira.

9. puntuari dagokionez:

Larunbatean egin zen bileraren deialdia, aurrerapen gutxirekin egin zela eta han azaldu zen Babes Ofizialeko etxeen behin-behineko kalifikazioa artxibatua egoteak zer adierazi nahi duen jakin nahi dute.

Otermin jaunak erantzuten du, gauzak ongi egin nahi izan direla, aukeratutako pertsonalitate juridikoa elkarte kooperatiba denez, eta honek eskatzen zuen zuhertasun eta argibideak direla eta denbora aurrera joan dela, ondorioz esleipena atzeratu egin delarik. Baita ere, elkargoko bisatuaren ordainketa ez dela egin eta horrek eragin du proiektuaren artxibatzea. Momentu honetan errekurtsioa aurkeztuta dago, eta ez du uste arazorik egon denik gaia berriz eskutan hartzeko.

Publikoko batek azaltzen du bilera batean berak galdetu zuenean proiektuaren bisatua ez ordaintzearen arazoa zein izan zen, erantzuna izan zela udaletxeak ez zekiela zenbat diru zuen edo esleipena egin ondoren esleituek beraiek ordaindu behar zuten ala ez. Baita ere azaltzen du, Eusko Jaurlaritzan aurkezterako garaian legedia aldatzear

zegoenez, korrika eta presaka egin zela, honek, adierazitako 10-12 puntuak epe barruan egin ez zirenez, suposatzen du proiektua bertan behera gelditzen dela. Orain errekurtsioa aurrera ateratzen ez bada proiektua bertan behera geratuko da eta honek denbora eta gastu handiak suposatuko ditu. Era berean eskatzen du baliabiltate planaren txostena eskuratzea eta alkateak erantzuten dio sinaturiko txostena ez dela iritsi eta ailegatzen denean emango zaiola.

10. puntuari dagokionez:

Ikus-entzule batek dio printzipioz idatziarekin bat datorrela, pentsatzen du etorkinen alde gauza asko egin behar dela, momentu honetan egoera nahiko berezia eta gogorra bai dute. Baita esaten du, berak uste duela etorkinek jasotzen ari diren egoera bezain larria pasatzen ari direla Anoetan bertan eta Euskal Herrian. Mozioak esaten duen bezala, printzipio bezala, pertsona guztiei tratu berdina sor zaie. Hau horrela, beraiek eskatzen dute udalak etorkinagatik egiten duena bere herriarengatik egitea.

Beste aztergairik ezean, bilkura amaitutzat jotzen da arratsaldeko 20 ordu eta 50minutu direnean; guzti honetaz, ni Idazkariak fede ematen dudalarik.

Sin más asuntos que tratar se levanta la sesión a las 20 horas y 50 minutos; de todo lo cual, yo el Secretario doy fe.